



7. DINARRIZKO EKINTZAK

Gure enpresa lokal bat denez, hau da, denda bat. Bezeroek gure enpresa ezagutzeko, hainbat publizitate ditugu:

- Sare sozialak.
- Iragarkia (Iragarkia gure telefono zenbakia jarriko dugu; kasu horretan, idazkari bat izango dugu, bezero bakoitzaren deiei erantzuteko eta hitzordu bat etortzeko).
- Web orria.

Gure enpresaren ekintza nagusia da estilo zehatzik edo bestelako arazo zehatzik ez duten pertsoneri zerbitzu bereziak ematea.

Enpresa honetan hainbat produktu aurki ditzakezu, adibidez, kremak eta zerbitzuak, eta gutako batek, berriz, josteko makina espezifiko batekin sortzen du gure arropa.

Halaber, bezeroak gure zerbitzuren bat probatu duenean, gure zerbitzua gomendatuko du, eta, beraz, bezero desberdinak izango ditugu.

Bezeroa atetik sartzen denean, itxarongela bat egongo da, gurekin elkarrizketa sakon bat izateko, bezero bakoitzaren estiloa ezagutzeko. Une horretan, aldaketa-prozesuari ekingo diogu.

Beraz, hurrengo gelan sartuko gara arropa guztia dagoen lekuan. Horretan, haren gorputza neurtzen hasiko gara, zer arropa motak on egiten dion ikusiko dugu...

Makillajearen kasuan, zer larruazal mota duzun aztertzeke makinak egongo dira, zer krema eta makillaje mota behar dituzun jakiteko. Azkenik, prezioa aldatu egin daiteke zerbitzu bakoitzeko, hau da, ez da gauza bera bezero batekin 2 metro oihal erabiltzea edo 4 metro erabiltzea.

Zerbitzua ere horren araberakoa da:

Zerbitzua makillajeari buruz bada, 30€ inguruko prezioa izango luke saio bakoitzeko; izan ere, makinak azal mota zein den esatea barne hartzen du, adibidez, aurpegi sentikorra baduzu, zer erabili behar duzun; ze krema behar duzun, ze serum...

Gure enpresan egon daitezkeen arazoak izan daitezke bezero gutxi izatea, gure artean komunikaziorik ez izatea edo gaitasun oso hurbilak izatea.

Horretarako, une oro elkarrekin egon behar dugu, eta lana ahalik eta urrutien iristeko helburuarekin egin behar dugu.

Konpetentzietarako, gure onena ematen saiatuko gara, eta bezeroei jakinaraziko diegu beste enpresa edo negozio batzuekin alderatuta zerbitzu mota desberdinak ematen ditugula.